

ABENDUALDIKO II. IGANDEA (C)

Otoitza

Jainko errukitsu ahalguztiduna,
 lur honetako egintzek ez gaitzatela lotu
 zure Semearen bidera goazenok,
 eta jainko jakinduriaren erakuspenek eraman gaitzatela
 zure Semearekin bat egitera.
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin.

I. IRAKURGAIA: Ba 5, 1-9

*Agertuko die Jainkoak zure distira
 zerupearan bizi diren guztiei.*

Baruk Profetaren liburutik

Jerusalen, erantzi dolu eta atsekabetako soinekoa,
 jantzi betiko, Jainkoaren aintzaren ederra.
 Bildu zure gorputza Jainkoak ematen dizun
 zuzentasunaren soingainekoz,
 eta ezarri buruan betiereko aintzazko koroa.
 Agertuko baitie Jainkoak zure distira
 zerupearan bizi diren guztiei.
 Jainkoak izen hau emango dizu behin betirako:
 «Bakea Zuzentasunean,
 Ospea jainkozaletasunean».
 Jaiki zaitez, Jerusalem, igo gainetara;
 begira sortaldera eta ikus zeure seme-alabak,
 sortaldetik sartalderaino Santuaren hitzak bilduak,
 eta pozturik, Jaungoikoa haietaz gogoratu delako.
 Oinez atera ziren, etsaiak eramanda;
 baina Jainkoak aintzatan ekartzen dizkizu,
 errege-gurdian bezala.
 Jainkoak erabaki du,
 mendi goi guztiak eta muinoak makurtzea,
 zulo uneak betetzea, lurra berdintzeraino;
 Israel lasai etor dadin,
 Jaungoikoaren aintzak zuzendurik.

Basoei eta usain oneko zuhaitzei
 Israeli itzala emateko agindu die.
 Pozetan eramango baitu Jaungoikoak Israel,
 bere aintzaren argiz,
 bere zintzotasunez eta errukiz.

ERANTZUN SALMOA: Sal 125, 1-2ab. 2cd-3. 4-5. 6

**R/. Gurekin haundikiro jokatu da Jauna:
 Hau da poza daukaguna!**

Jaunak Siongo atxilotuak erakartzean,
 bageunden amets antzean.
 Orduan bete zitzaigun ahoa barrez,
 gure mihia goratarrez. R/.

Atzerrietan, orduan, esan zuten:
 «Jauna haundikiro jokatua dute».
 Gurekin haundikiro jokatu da Jauna:
 Hau da poza daukaguna! R/.

Bihur ezazu, Jauna, gure zoria,
 Negebeko erreka urak bezala.
 Malkoz erein dutenek,
 pozez bilduko dute. R/.

Haruntzakoan hor doaz negarrez,
 ereiteko gari zorroa eramanez.
 Pozik etorriko dira honuntzakoan,
 gari balak eskuan. R/.

II. IRAKURGAIA: Flp 1, 4-6. 8-11

*Garbi-garbi eta esankizunik gabe
 iritsiko zarete Kristoren egunera.*

San Paulo Apostoluak Filipotarrei

Senideok: Zuentzat otoitz egiten dudanean, pozik eskatzen diot Jaungoikoari. Zuek laguntzaile izan baitzaituztet Ebanjelioko eginkizunean, lehenengo egunetik orain arte. Badut uste, eginbide on hau zuengan hasi duenak, bukatuko duela Jesu Kristoren egunera arte.
 Testigu dut Jainkoa, zeinen kristau maitasun haundiz maite zaituzteda!

gero eta haundiago egin dadila zuen maitasun elkarte, ezagutze sakon eta erabateko zentzuan, onena aukera dezazuen; horrela, garbi-garbi eta esankizunik gabe iritsiko zarete Kristoren egunera; zintzotasun emaitzez beterik, Kristo Jesusen bitartez, Jainkoaren aintza eta gorespenerako.

EBANJELIOA: Lk 3, 1-6

Aleluia: Lk 3, 4b. 6

R/. Aleluia.

V/. Urra ezazue bidea Jaunarentzat,
zuzendu Haren bideskak;
eta ikusiko dute guztiek
Jaungoikoaren salbamena. R/.

Ikusiko dute guztiek Jaungoikoaren salbamena.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Tiberio errege nagusi zelarrik, haren erregetzaren hamabostgarren urtean, Pontzio Pilato Judeako agintari zela, eta Herodes Galilean errege ordeko zegoelarrik, eta haren anaia Filipo, Iturea eta Trakoni lurraldean errege ordeko, eta Lisania Abilenen errege ordeko, eta Anas eta Kaifas apaiz nagusi zirelarrik, Jaungoikoaren hitza etorri zitzaion basamortuan Zakariasen seme Joani.

Eta Jordan inguru guztian, bihotz-berritzeko bataioa hots egiten hasi zen, bekatuen barkamenerako, Isaias profetaren liburuan idatzirik dagoen bezala:

«Mintzo bat oihuka ari da basamortuan:

Urta ezazue bidea Jaunarentzat,
zuzendu Haren bideskak;
gora daitezela haranak,
beheratu mendi eta muinoak;
berdin daitezela malkarrak,
zelaitu lur maldak.

Eta ikusiko dute guztiek Jaungoikoaren salbamena».

Oparigaien gainekoa

Biguin zaitzatela, Jauna,
gure otoitz eta eskaintza apal hauek,
eta, gure merezimenturik ezin aitatu dugunez gero,
zure errukiak lagun diezagula.
Jesu Kristo.

Prefazioa: Abendualdiko I.a

Jaunartze ondorengoa

Arimen janari honek aserik,
otoitzean gatozkizu, Jauna:
erakusiezaguzu, sakramentu honetan parte hartu dugunoi,
lurreko gauzak zentzuz erabiltzen
eta zerukoei jarraitzen.
Jesu Kristo.